

Gaurko sorginkeriak

Euzko Gaztedi, 2. zk., 1948-07: 3-4.

Nik sarritan entzun izan det Venezuela'ko umeak sorginkeri guziak egitzaz artzen dituala. Bein bañ geiagotan entzun izan det izparringietan, sorgintzat bere burua dauken ajolagabe ta alproja oeik, sinismen parregarri asko egitzaz dauzken leloak nola ta zetarao zirikatzen dituzten. Enuan, ordea, beñere uzte izan ain errez Caracas bertako gizon ta emakumeak, anka ta bururik ez duten gertaera parregarriak sinisten zituztenik.

Neronek zueri esatera nuana beste abo batetik entzun izan ba'nuan, gizon-emakume aiek jartzen zituzten arpegi ta, ikaraturik, beraiekin egiten zituzten ziñuak ikusi izan ez ba'nituan, bear bada nenuan ezer sinistuko. Zuek derizkiozutena egin orain...

Umetan aña goxo jaten ez ba'det ere, txikia nitzanean baño ortz geiago eroritzen zaizkit orain. Diruren bat neronen gain irabasten asi nitzan eskero, gutxi irabasteko zenbat lan egin bear dan konturatu naizenean, derizkiot ben-benetan, umeari, gure burua umetzaz ez daukagunak, ortz ustel da txitxare kontu oiek, gure sakelari begirune bat bota ta esaten ditugula.

Agin gutxi ateratzeagaitik diru asko ateratzen duten oietako bategana joan nitzan oraindik asko ez dala. Beti gerta oi dan bezela, lenbailen bukatu ta atera naiean bazuaz...! ba'zaude pixka baterako!. Egun orretan iñoiz baño goizago azaldu nitzan, ortz-ateratzalea eldu oi zan baño lentxuago, bada-ebada ere, baño ni eltzerako an zauden beste bi goiztar.

– Egun on –legun bat urten zitzaidan, nere buruan itz lakarragoak erabili arren.

– Berdin –erantzun ziraten bat-batera, ortarako egun aldiz alkarrekin zayoa egin ba'lute baño zuzenago.

Gizon lodi ta arpegi leguna zan bata; ezerilekua zabala izan arren, bere aldamenen gau aundirik gordetzeko lekurik etzegoan; ile ta begi beltzak ziran aiek, arraio pola; kixk ur-k ixkurra bata ta iñora egiratu gabe dana ikusten dutela ematen duten bi ikats koskor pixtuak, besteak.

Anaiak etzirala beriala igarri nion. Au beltza zan ainbat zuri zan beregan zegoan emak-umea. Ille gorririk antolatze gairik ba'dago, ezagutzen zuan geien gorritzen zuan emakume arraio arek... Leiotik zartzen zan egun artako eguzki berriak jo ta zurtan zeoala ematen zuan txori-buru arek. Gizasemea lodia bazan, ba'zaukan aldamenen geiegia non erantzia; ez det sarritan alako anka-sain merik ikusi; ta ala ere belauna baño gorago gona jaso bear atso lotzagabe arek. Osasun aundirik etzuan noski ta askazal luze ta españ ximurrak bakarrik zauzkan odo orlegiz jantziak. Mutur joka ibilia izango zan noski aurregunian, begi ondoak belz-beltz eginda zauzkan beintzat eta...

Nere ustez, adiñean bakarrik zabiltzen aiek bateruntz, biak berrogei ta bost urte inguruan.

Bien erdian zegoan jarlekua utzirik zegoan da an exeri nitzan. Emengo umeak, bata besteari gertatzen zaizkioten gauzarik gordeenak ere esaten dizkiote oso errez, bata bestea

ezagutzen ez ba'dute ere. Batere lotzatu gabe, etxeko ezpa-bai guziak, gure uztean esateko lotzagarri diranak ere, batere ajola gabe ezaten dituzte.

Izketan asi berriak zirala igarri nion beriala, oraindik aurregunian egin zuan eguraldi gaiaz ari ziran da. Laxter ziran non bizi ziran da zer zenditakoak ziran bata-besteari ezaten. Batere nai gabe, bost minutu barru ba'nekian emakumeak bi seme, egundalako senar ona ta giltzurdiñean bi arri koxkor zauzkala. Gizasemea oraindik eskongai, tz eskontzeko batere gogorik gabe, zionez....

Anka soñua nabaitu genuan bezin laister ixildu ziran ontan, ta irurok batera begiratu genduan eskail-burura....., baño agin-ateratzailerik ez oraindik. Ama-alaba batzuek, gure gixa, berari itxarotera. Ama-alabak zirala nola nekian diozu?... Aien gora begira zauzkatzen bi sudur motz lotzagabeari begiratu besterik etzegoan jakiteko!.

Gutxi barru, beste emakume batek artu zuan beretzat, utzik geratu zan jarlekua.

Etorrera aiek eten zuten aritik bertatik ekin zion mekume ile-gorri arek, gizonari galdezka. Etzegoan ura galtzeko, arranua!...

– Beraz, eskongai ta eskontzeko gogorik batere gabe?...

– Ala da, bakarrik bizitzeak ere ba'ditu bere goxagarriak; nai detana egiteko aske naiz beintzat....

Emakume guztiak batera, erdi parrezka ta (beste) bata-besteari begira, zerbai ezan zuten ta berriz ere ile-gorria ekin zion zerbaitxo bat geiago jakin naiean, zirrikaka....

– Gurasoarekin bazera, ez da arritzekoa!....

– Amarik enuan ezagutu ta aita il zarra ez da. Ez, ez, bakarrik bizi naiz.

– Baño anai-arrebaren bat izango dezu beintzat..

– Iñortxo ere ez emen. Bi arreba ta anai bat Maracaibo'n bizi dira, angoa naiz eta.

– Ara beraz!.... ez da alaia zure izatea... –zion berriz emakume lotsagabe arek, bere exeri-lekuan zerbait aurreratu ta obeto entzuteko jarri ta gero.

Beste emakumeak kupituta begirune goxo bat bota zioten gure gizonari. Onek, bere burua zerbaitzat artu ta erdi parrez zerbait geiago esan naiean jarraitu zuan...

– Ez det esan nai emakumerik gabe bizi izan naizela beti –zion orain, bere gizatasuna gaizki ulertu etzezaten–alaba bat ere izan nuan batekin....

– Bere ama gaz bizi al da? –galde zion orain, buru belarri entzuten ari zan asken etorritako emakumeak.

– Ez, il zan gaixoa....

– Ara, ba, gizarajoa! –zioten danak, kokotza jaso, obeto entzuteko arpegia alde batera pixka bat bota ta aba bakoitzak bere eraniki ta....

Ontan gaudela eldu zan beste emakume bat, eskua eskerreko matrail aundituaren gañean saramala. Garlekurik etzegoan ta batere indartu gabe eskeñi nion nerea. Gizon lodiak ere eskeintzeko kuñua egin zuan eta emakumeak ikaratu ere bai, geiago jakin gabe geratu earko ote zuten edo... Ile-gorri sorgin arek begiak pixtu ta eskerrekoarekin eskerra ere eman zizkiala uzte izan det beti geroztik, gizon lodia bere lekuan uztea gaitik. Emakume guziak begiratu zorrotz bat, bota zioten askena eldu zanari, isketaldi mamitsu ura ebaki zualako. Gaixoak, ordea, etzitun aintzakotzat ere artu, naikoa zuan bere agiñeko minarekin.

Ez dakit gizon lodiak geiago itz egiteko asmorik batere ba'zuan, baño ainbeste begi berari begira zerbait geiagoren zai, jarraitu bear. An zegoan orain emakume guzien erdian, baño etzan batere ikaratu.

– Ogei urte bete zituan artean –zion orain, bere nurua atzera bota ankak ziran aña luze aurreratu ta bere gilbor aundi ura gerrikoak bi puzka eginda bezela azaltzen zuala, lasai jarri ta– enuan alaba ezagutu.

– No ezagutu zenduan ba'da? –ausartu zan, bere alaba gaz eldu zan emakume lotsagabea.

– Bere ama nun bizi zan ba'nekien ta bertara joan nitzan batean...

– Ara nola! Ogei urte igaro arren, maite zenduan oraindik!...

– Ez da zuek uzte izango dezuten bestela eokitu.... Gezurra dirudi, baño eskontzeko zegoala osagutu nuan ta dan-dana zegoan bezela utzi, antolatu ta zegoan eskontza puzkatu, senai-gaia utsi, ta neregaz etorri zan Caracas'era...

Etzan elbiega soñurik ere entzuten, danak ixilik, belarriak erne... Ama gaz etorri zan neskatx ura bakarrik zegoan kontu aieri eramon aundirik egin gabe, bere idastitxo bat irakurriaz...

– Artarako –jarraitu zuan gizon lodi, goipetzueak, sudur-zapi baratera ta iserdia bere kopeta ta matrail mamitsu aietatik kentzen ari zan bitartean– nere aldamenean bizi zan emakume batek agindu ziran ori egiteko, karkak bota ta gero...

Erritar [Martin Ugalde]

(Urrengo zenbakian jarraituko degu)